

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

##### Osasun Publikoaren Zerbitzua

**Berriazko oinarriak, 2024an gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia arautuko dutenak**

2023ko abenduren 1ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an Gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia arautuko duten berriazko oinarriak.

Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 24.6 artikulua betetze aldera, ALHAOn argitaratuko dira 2024an Gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia arautuko duten berriazko oinarriak.

#### 1. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Dirulaguntzen deialdi hau indarrean dagoen –Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko urtarrilaren 21ean onetsi baitzuen– Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (2021-2024) 31. lerroaren barruan sartzen da (“2024an gaixotasunak prebenitzearen arloan sentsibilizazio-proiektuak egiteko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen osasuna sustatzeko laguntzak”).

#### 2. Deialdiaren xedea

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitateen proiektuak laguntzea da deialdiaren helburua, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuak egiteko, beti ere Vitoria-Gasteizko biztanleei zuzenduta badaude.

Adikzioen arloko programa edo proiektuak ez dira deialdi honen xede.

Proiektuek alderdi hauek sustatu behar dituzte:

Gaixotasunen prebentzioari eta osasunaren sustapenari buruz informatzea eta zabalkundea ematea.

Gaixotasun edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen edo horien senideen bizi-kalitatea (osasun ikuspegitik) hobetzea.

Osasun arazoaren arloko sentsibilizazioa, euskarria eta elkarrekiko laguntza.

Eragindako pertsonak beren osasunean inplikatzeko.

Ekitatea osasunean.

#### 3. Aurrekontua

Deialdi hau aldeztu aurretik onartzen da, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17. artikuluekin bat etorritik, halako moduan non dirulaguntzak emateko unean kreditu egokia eta nahikoa egotearen menpe baitago.

Baldin eta Vitoria-Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorrean behin betiko onesten den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak; lehen kasuan, behar den gastu-dosiera izapidetuko da ebazpena eman aurretik, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Deialdi honetako laguntzak bi programatan banatzen dira: A programa, 2024ko ekitaldian garatu beharrekoa, eta B programa, 2024-2025 ikasturtean garatu beharrekoa.

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailaren (Osasun Publikoko Zerbitzua) 2024 eta 2025 ekitaldietako aurrekontuko 24.30.01.3112.48104 (Osasuna sustatzeko dirulaguntzak) partidako aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, 442.102,87 euroko gehieneko zuzkidurarekin, honela banatuta:

2024. urtea: 427.429,74 euro.

2025. urtea: 14.673,13 euro.

A programa, 2024. urtea: 420.660,89 euro.

B programa, 2024. urteko iraila-abendua aldia: 6.768,85 euro.

B programa, 2025. urteko urtarrila-ekaina aldia: 14.673,13 euro.

B programa 2024/2025 ikasturtean gauzatuko da, 2024ko ekitaldiko kredituaren bidez 2023ko irailetik abendura bitartean, eta 2025eko ekitaldiko kredituaren bidez 2025eko urtarriletik ekainera bitartean.

A programa, 2024ko ekitaldia: 420.660,89 euro.

B programa, 21.441,98 euro, honela xehatuta:

2024ko ekitaldia: 6.768,85 euro.

2025eko ekitaldia: 14.673,13 euro.

Aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, proiektuak balioestearen ardura duen organoak programa batetik beste batera kreditua aldatzeko ahalmena izango du, betiere deialdi honetan onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

#### **4. Entitate onuradunen betebeharrak**

Osasun-arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio edo entitate pribatuak izan ahalgo dira deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Estatutuetako helburuen artean berariaz aitortuta izatea osasuna sustatzeko edo elkartekideen bizi-kalitatea hobetzeko jardueretan aritzea.

Dirulaguntza eskatzen duten entitateek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbi-dea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta.

Dirulaguntza eskatzen duten entitateek Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian —edo dena delako erregistro publikoan— izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoren batean ez egotea.

#### **5. Dirulaguntzaren xede diren programak eta jarduerak**

Deialdi honen harira diruz laguntzen diren programa eta jarduera guztiak jarraian adierazten diren programetakoren baten barruan garatu beharko dira: A programakoak 2024. urtean, eta B programakoak 2024-2025 ikasturtean zehar.

Programetako bakar batera edo bietara aurkeztu ahalko dira entitate eskatzaileak. Bi programetara aurkezten diren entitateek proiektu bat aurkeztu beharko dute A programarako eta beste bat, desberdina, B bereizten dira edozein delarik ere B programarako, proiektu biak agiri desberdinetan.

Entitate bakoitzak 47.000,00 euroko dirulaguntza eskatu ahal izango du gehienez A programan, eta 10.000 eurokoa B programan.

A programa.

Osasunaren arloko programak, patologia kronikoak edo gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arreta eta errehabilitazioa emateko prozesuan jarduerak egiteko, kaltetuen familiei zerbitzuak eskaintzeko, eta gaixotasun kronikoen zabalkunde- eta sentsibilizazio-proiektuak egiteko, herritar orori zein talde espezifikoari zuzenduta.

Jarduera mota hauek lagunduko dira, ez besterik:

Gaixotasunaren inguruko aholkularitza eta informazioa.

Arreta podologikoa.

Errehabilitazio logopedikoa.

Errehabilitazio fisioterapeutikoa.

Errehabilitazio kognitiboa.

Laguntza psikologikoa.

Terapia okupazionala.

Autolaguntza taldeak.

Eragindako pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan-saio eta lantegiak.

Delako gaixotasunarekin lotutako publizitate-kanpainak. Gaixotasun jakin bati buruzko munduko egunak, biltzarrak, gaixotasun horri buruzko informazio-standak, etab.

Dena delako gaixotasunaren gaiarekin, osasuna sustatzearekin edo gaixotasuna prebenitzerekin lotutako publizitate-kanpainak.

Gaixotasunari buruzko sentsibilizazioa edo zabalkundea helburu duten beste jarduera batzuk.

Programak barne hartzen ditu entitateak eskatzaileei emandako aholkularitza eta arreta (aurrez aurrekoa edo telefonoz), sare sozialak...

B programa.

Vitoria-Gasteiz Hiri hezitzaileko ikastetxeetan osasuna sustatzeko proiektuak, 2024ko irailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean.

Jarduera mota hauek lagunduko dira, ez besterik:

Gizartea gaixotasunei buruz edo gaixotasunak eragindako estigma soziala murrizteari buruz sentsibilizatzeako programak.

Osasunaren sustapenarekin eta gaixotasunaren prebentzioarekin lotutako programak.

Programa honen bidez diruz lagundu ezin diren jarduerak.

Ez dira diruz lagunduko Vitoria-Gasteizko Udalaren zerbitzuek antolatutako "Vitoria-Gasteiz hiri hezitzailea" programaren barruan eskaintzen diren jardueren antzekoak diren proiektu edo jarduerak.

## 6. Diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak

Oro har, ez dira diruz lagunduko antolakuntzako aperitibo, gosari, catering, bazkari edo afa-riak (ezta antolatzaileek parte-hartzaileei emandakoak ere), ezta jardueretan emandako opariak edo elkarteen jolas-topaketak ere.

Salbuespen gisa, horrelako gastuak onartuko dira, horien beharra arrazoitu eta justifikatzen bada.

Era berean, ez dira diruz lagunduko entitateetako profesionalen prestakuntzara zuzendu-riko ikastaroak, ibilgetuan egindako inbertsioak (hala nola altzariak, instalazioak, ekipamendu tekniko, informatikoa edo ikus-entzunezkoa, ibilgailuak eta abar), salbu eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote, behar-beharrezkoak badira eta ezarri-tako epean egiten badira.

Baldin eta aurkezten den aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, kendu egingo dira aurkeztutako aurrekontutik.

## 7. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatu edo gauzatzea, entitate onuradunari lotutako langileen bidez

Entitate onuradunak diruz lagundutako jarduerak gauzatzea itundu ahal izango du enti-tate onuradunari lotutako pertsona edo entitateekin, betiere organo emailearen alde aurreko baimena lortzen badu eta kontratazioa merkatuko baldintzen arabera egiten bada, diruz la-gundutako jardueraren ehuneko 75eko mugarekin, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 29.7 d) artikuluan ezarritako baldintzetan.

Entitateari lotutako pertsonatzat joko dira entitatearen zuzendaritza batzordeko kide izanik, aurkeztutako proiektuko jarduerak egiteagatik ordainsaria jasotzen dutenak.

Entitate onuradunak elkarteari lotutako langileekin ordaindutako jarduerak egin behar ba-ditu, "Azpikontratatzeko baimen-eskabidea" eranskina aurkeztu beharko du, deialdiaren doku-mentazioarekin batera.

Soilik osasun publikoaren zerbitzuak berariazko baimena ematen badu onartuko dira elkarteari lotutako pertsonen izenean egindako ordainagiri, faktura eta nominak. Ez da baimen-eskabiderik onartuko deialdirako eskabideak aurkezteko epetik kanpo lotutako langileak azpikontratatzeko.

Hasierako proiektuak birformulutzen badira, azpikontratazio-ehunekoen aldaketak onartuko dira, izendapena lotuta dauden baldin eta tarte berean mantentzen badira. Horretarako, azpi-kontrataziorako beste baimen-eskaera bat aurkeztu beharko da.

Ezarritako tarteak, proiektuaren aurrekontu osoari dagozkionak, honako hauek dira:

Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 25,00 arte.

Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 25,01etik ehuneko 50,00era arte.

Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 50,01etik ehuneko 75,00era arte.

Emandako dirulaguntzaren justifikaziotik ondorioztatzen bada baimendu gabeko azpikon-tratazio bat gertatu dela, edo azpikontratazioaren ehunekoa baimendutakoa baino handiagoa izan dela, entitateak azpikontratazio horri dagokion zenbatekoa itzuli beharko du.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 24.1 artikuluan ezarri-takoaren esparruan, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzen zaio entitate onuradunari lotutako pertsona edo entitateei diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko baimena emateko eskumena, deialdi honetan ezarritako mugaraino.

## 8. Azpikontratatea, entitate onuradunarekin loturarik gabeko langileen bidez

Entitate onuradunak berarekin zerikusirik ez duten hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatzea, dela osorik (ehuneko ehunean) edo partzialki, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 29. Artikuluan xedatutakoaren bidetik.

Azpikontratutako zenbatekoak kontratu txikietarako kontratuen legerian ezarritako zenbatekoa gainditzen badu (15.000,00 euro), entitate onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, salbu eta merkatuan ez badago behar adina hornitzaile. Justifikazioarekin batera aurkeztu behar da hautaketa, eta hautatua ez bada proposamen ekonomiko onuragarriena egin duena, justifikatu egin beharko da hautua.

## 9. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira laneguntzat hartuko.

Aukeran, dokumentazioa egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>), digitalki sinatua izan dadin.

Ezin bada dokumentazioa egoitza elektronikoan aurkeztu, Ezin bada, herritarrei laguntzeko bulegoren batean aurkeztuko da, bertan erregistra dezaten eta dokumentazio guztia formatu digitalean eraman beharko da pendrive batean. Herritarrei laguntzeko bulegoko langileek dokumentuak erregistratuko dituzte, eta euskarri digitala itzuliko diote interesdunari.

Eskaera egiteko unean, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, pdf formatuan:

1. Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria, 2024ko dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorretako ereduaren arabera, zein Udalaren webgunean baitago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak](http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

2. Eusko Jaurlaritzako Elkarleen erregistro orokorrean edo, bestela, dagokion erregistro publikoan legez eraturta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere lehenago aurkeztu ez bada.

3. Entitate eskatzailearen estatutuen eta identifikazio fiskalerako txartelaren kopia bana, baldin eta Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailaren deialdi batean parte hartzen duen lehenengo aldia bada, edo (beste deialdiaren batean aurkeztu bada) estatuek aldaketaren bat izan badute aurkeztu ziren azken alditik.

4. Eskatzailearen ordezkariaren egiaztagiria eta entitate eskatzailearen legezko ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiri nazionalaren (NAN) edo atzerritarraren identifikazio-zenbakiaren (AIZ) kopia.

5. Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua, kontu-zenbakia eta banku-kontuaren titularra jasotzen dituen, kontuan hartuta entitate eskatzailea bera izan behar duela kontuaren titular.

6. "Erantzukizunpeko adierazpena" eranskina: bertan, eskabidea aurkeztzen den egunean entitatearen bazkide-kopurua adierazi behar da.

7. "Azpikontratatzeko baimena" eranskina. Entitate onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak azpikontratatzeko baimen-eskabidea, halakorik egitekoa bada.

8. Jardueren proiektu osoa:

Proiektu osoa: proiektuaren helburu orokorrak eta helburu espezifikoak betetzeko egingo diren jarduera guztiak zerrendatzen eta zehatz-mehatz azaltzen dituen dokumentua, baita haren barruan osasun publikoaren zerbitzuari laguntza eskatutako jardueraz aparte baldin bada ere. Hori ezinbestekoa da proiektua behar bezala puntuatzeko; izan ere, proiektu osoa baloratuko da, eta ez soilik osasun publikoaren zerbitzuaren laguntza eskatu diren jarduerak.

Jarduera: proiektu osoak hartzen dituen ekintza eta/edo zerbitzuak, osasun publikoaren zerbitzuari laguntza ekonomikoa eskatzen zaion ala ez kontuan hartu gabe. Deialdi honen arabera, diruz lagun daitezkeen jarduerak dira.

Proiektua propio sortutako dokumentua izango da, gehienez 40 orrialdekoa, A eta/edo B programa bakoitzeko.

Bertan, argi eta garbi adierazi behar dira proiektuko jarduera bakoitzari egotzi beharreko gastuak.

Aurkeztutako proiektuak jarraian adierazitako atalak izan behar ditu, eta adierazitako hurrenkeraren berean. Horrez gain, proiektua hobeto baloratzeko egokitzat jotzen duen beste edozein informazio edo dokumentazio erantsi ahal izango du entitate eskatzaileak.

Pertsonen buruzko datuak, ahal dela, sexuaren/generoaren (emakumea/gizona/ez bitarra) arabera bereizita aurkeztu behar dira, bai aurkeztutako proiektuan, bai ondorengo justifikazioan ere.

#### 8.1 Entitatearen ibilbidea:

Entitatearen ezaugarriak: fundazio-urtea, Vitoria-Gasteizen duen bazkide eta boluntarioen kopurua; entitatearen parte hartze aktiboa duten boluntarioen kopurua; entitatearen ibilbidearen laburpena: zenbat urte daramatzen lanean, egindako proiektu garrantzitsuak, zein beste entitatearekin lan egin duen, zein forotan parte hartu duen, entitatea antolatze eta kudeatzeko moduak (langileak, ekipamendua, zereginen banaketa).

Entitatearen zuzendaritza batzordeko kideak ere generoaren arabera banatuta adierazi behar dira.

#### 8.2 Helburuak eta justifikazioa.

Proiektu osoaren oinarriak.

Helburu orokor nahiz berariazkoen formulazioa.

#### 8.3 Proiektu osoaren jarduera eta ekintzak, jarduera bakoitzean atal hauek zehaztuta:

Jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza, honako hauek zehaztuta:

Aurreikusitako saioren kopurua.

Edukiak.

Metodologia.

Dinamikak.

Hizkuntza: bi hizkuntza ofizialen erabilera ahal den guztietan.

Zabalkundea: adierazi nola egingo den: standak, liburuxkak, bideoak, sare sozialak, etab. Jardueren berri emateko asmoz egindako kartelean eta testuetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista nabaritu behar da.

Kronograma.

Lankidetzaren beste entitate batzuekin.

Genero, etnia, dibertsitate funtzional, migratzaile, diru-sarreraren txiki eta abarren ondoriozko desberdintasunak murrizteko eta/edo saihesteko neurriak.

Jardueraren hartzaileen eta onuradun izan daitezkeen kopurua, ahal dela generoaren arabera banakatuta.

Gainera, B programan adierazi behar da zenbat ikasgelari zuzenduko zaion, gehienez ere, jarduera, eta zenbat saiotan. Horrez gain, lantegiak bideratuko dituzten pertsonen genero-berdintasunaren arloan gutxienez 10 orduko prestakuntzaren egiaztatzea aurkeztu behar dute, edo lantegiak hasi aurretik prestakuntza hori jasotzeko erantzukizunpeko adierazpena.

### 8.3.1 Jarduerari atxikitako langileak.

Argi eta garbi adierazi beharko dira langileen kopurua, profila, eginkizunak, dedikazioa eta abar, eta bereizi egin behar dira, baita, ordaindutako langileak diren –zuzenean eta zeharka kontratatuak izanda ere– eta ordainsaririk jasoko ez duten boluntarioak eta/edo laguntzaileak.

### 8.3.2 Baliabide materialak.

Jarduera egiteko beharrezko baliabide materialak adierazi behar dira, hala nola ekipo informatikoak, bulegoko materiala, ikus-entzunezko materiala, ibilgailuak eta abar.

### 8.3.3 Espazioak eta/edo instalazioak.

Jarduerak behar dituen espazioak eta/edo instalazioak zehaztu behar dira.

Zehaztu egin behar da zein udal-espazio publikotarako eskatzen den tasa-hobaria edo tasatik salbuestea (7.11 ordenantza fiskala), data adierazita.

Proiektua garatu bitartean hasiera batean aurreikusi gabeko espazioren bat erabiltzeko beharra sortzen bada, diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiteaz arduratzen den teknikariari jakinarazi beharko dio entitateak, eta hark kudeatuko du gorabehera hori.

### 8.3.4 Jarduera ezagutarazteko elementuak eta/edo ekintzak.

Udalaren lankidetzeta jaso dela adierazi beharko da jardueraren beri emateko kartel, liburuxka, mezu, eslogan eta gainerako elementuetan, betiere Udalaren seinaletikaren moldeen arabera. Halaber, hedapenerako egindako kartel eta testu guztietan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabili beharko dira.

Jardueraren berri zabaltzeko erabiliko diren bitarteko, euskarri, kanal eta egintzen berri eman beharko da.

### 8.3.5 Jardueraren ebaluazioa.

Ebaluazio-metodologia zein erregistratuko diren adierazleek zerrenda, eta proposatutako helburuak bete diren ala ez baloratzeko erabiliko diren irizpideak. Sistematikoki erabili behar da genero-aldagaia jarduera ebaluatzeko egiten diren estatistika, inkesta edo datu-bilketetan.

8.4 Entitate eskatzaileak proiektua edo jarduera hobeto baloratzeko egokitzen jotzen dituen bestelako agiriak.

9. IV-S eranskina: gastuen eta sarreraren aurrekontua, jarduera bakoitzerako gastuen eta diru-sarreraren banakapena barne, IV-S eranskinaren arabera (diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua). Dokumentu hori, PDF formatuan aurkeztutako proiektuaren parte izateaz gain, bereizita ere aurkeztu beharko da, kalkulu-orri batean.

## 10. Balorazio-irizpideak

A programan kontuan hartuko diren alderdiak:

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurrekontuaren xehetasun eta koherentzia, gehienez 20 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 10 puntu.

Finantzaketaren definizioa eta banaketa, gehienez 10 puntu.

Bideragarritasun teknikoaren irizpidean 12 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 30 puntu. Jardueraren ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratuko dira, atal hauetan banatuta:

Proiektuaren justifikazioa: Koherentzia eta egokitasuna, gehienez 7 puntu.

Proiektuaren definizioa, antolakuntza eta kudeaketa, gehienez 15 puntu.

Proiektua ebaluatzeko metodoa eta tresnak, gehienez 8 puntu.

Bideragarritasun teknikoaren irizpidean 15 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko.

3. Proiektuaren beste alderdi batzuk, gehienez 50 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurreikusten den onuradun kopurua, gehienez 5 puntu.

Jardueren publizitatea eta zabalkundea, gehienez 4 puntu.

Boluntarioen parte-hartze aktiboa, gehienez 4 puntu.

Eragindakoen eta horien familien inplikazioa, gaixotasunean parte aktiboa hartzearen bidez, gehienez 5 puntu.

Herritarrak, oro har, sentsibilizatu eta informatzea, gehienez 6 puntu.

Genero-desberdintasunei aurre egiteko estrategiak. Gaixotasunaren prozesuan emakumeek eta gizonek duten posizio desberdina identifikatzea baloratuko da, baita generoagatiko diskriminazioak zuzentzeko emakumeei zuzendutako neurriak, adiskidetze-neurriak eta abar; gehienez 7 puntu.

Beste entitate batzuekiko sinergiak sustatzea, gehienez 6 puntu.

Proiektuan ekitate-neurriak, generoari dagokienak alde batera, gehienez 13 puntu.

B programan kontuan hartuko diren alderdiak:

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurrekontuaren xehetasun eta koherentzia, gehienez 20 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 10 puntu.

Finantzaaketaren definizioa, banaketa eta azpikontratazioa, gehienez 10 puntu.

Bideragarritasun teknikoaren irizpidean 12 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 66 puntu. Jardueraren ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratuko dira, atal hauetan banatuta:

Prestakuntzaren oinarri teorikoa, helburuak, egokitasuna, gehienez 12 puntu.

Hartzaileak, programa bakoitzeko saio-kopurua, gehieneko programa kopurua, eman beharreko edukiak, irakasteko hizkuntza edo hizkuntzak, erabilitako material didaktikoa eta baliabideak, gehienez 35 puntu.

Metodologia, gehienez 14 puntu.

Lantegiak bideratuko dituzten pertsonen genero-berdintasunaren arloan gutxienez 10 orduko prestakuntza egiaztatua izatea, edo lantegiak hasi aurretik prestakuntza hori jasotzeko erantzukizunpeko adierazpena, gehienez 5 puntu.

Bideragarritasun teknikoaren irizpidean 27 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko.

3. Prestakuntzaren ebaluazioa, gehienez 14 puntu, atal hauetan banatuta:

Ebaluazio-metodoa. Ebaluazio-tresnak. Adierazleak. Jarduera ebaluatzeko egiten diren inkestak edo datu-bilketak, gehienez 5 puntu.

Ikaskuntzaren ebaluazioa eta hartzaileen gogobetetze-maila, gehienez 9 puntu.



**11. Diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko**

Proiektu bakoitzak, gehienez, 100 puntu eskuratu ahalko ditu.

A programan 47.000,00 eurokoa izango da gehieneko laguntza proiektu bakoitzeko, eta 10.000 eurokoa B programan.

Deialdiko balorazio-baldintzak eta -irizpideak bete dituen proiektu bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako eta baloratutako eskabideak alderatzen dira, haien arteko hurrenkera ezartzeko.

Aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa modu proportzionalean banatzen da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera.

Dena den, dirulaguntzen eta bestelakoen bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako proiektuaren kostu osoa baino handiagoa.

**12. Birformalazioa**

Aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, entitate onuradunari eskaera birformulatzeko eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara egokitzeko, betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 23.2 artikuluaaren arabera.

**13. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin**

Deialdi honen baitan eskura daitekeen dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin ematen dituen laguntzekin, baldin eta laguntzen zenbateko guztiak proiektuaren aurrekontua gainditzen ez badu. Horretarako, proiektu honetarako eskatutako eta emandako laguntza guztiak aitortu beharko dituzte eskatzaileek.

**14. Dirulaguntza emateko prozedura**

Elkarren arteko lehia baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura gisa, Vitoria-Gasteizko Udalaren III. kapituluaren ezarritakoarekin bat etorrira.

Jakinarazpenak.

ALHAOren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Balorazio-batzordea.

Kide anitzeko organo bat eratuko da, eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko proposamenak egiteko. Osasun Publikoaren Zerbitzuko teknikariek osatuko dute organo hori. Pertsona hauek izendatu dira batzordekide: Amelia Pinedo, psikologoa; Arantxa Saéz de Ibarra batzordeburu lanetan; Sara Brizuela eta Eneko García, eraizainak, eta bigarren hori idazkari lanetan ere arituko da.

Behar izanez gero, osasun publikoaren zerbitzuko teknikariek ordezkatu dituzte kide horiek.

Instrukzio-organoa.

Osasun publikoaren zerbitzu izango da organo instrukzio-egilea, zeinak Piedad Parra izendatu baitu instrultore lanetan aritzeko. Hark ofizioz egingo ditu dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Prozedura.

ALHAOn argitaratuta jakinaraziko da behin-behineko ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoitua; hamar egun baliaduneko epea izango da alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horretan, dirulaguntzak zein eskatzaileari ematea proposatzen den eta horiek zenbatekoak diren adieraziko da, bai eta ebaluazioan erabilitako balorazio-irizpideak ere.

Behin betiko ebazpen-proposamena ALHAO bidez jakinaraziko da. Entitateren batek laguntza onartuko ez balu, 5 egun balioduneko epean jakinarazi beharko du, osasun publikoaren zerbitzuari zuzendutako idazki erregistratu baten bidez.

Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko eskumena duen organoa.

Deialdia emaitza ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa da, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

### 15. Dirulaguntza ordaintzea

Honela banatuko da dirulaguntzaren ordainketa:

A programan, 2 zatitan ordainduko da dirulaguntza:

Laguntzaren ehuneko 80 dirulaguntza ematen den unean ordainduko da banku-transferentzia bidez, dirulaguntzaren aurrerapen gisa.

Gainerako ehuneko 20a justifikazioa bidali eta onartzearen mende egongo da.

B programan, 3 zatitan ordainduko da dirulaguntza:

2024ko aurrekontuan kontsignatutako zenbateko osoa dirulaguntza ematen den unean ordainduko da banku-transferentzia bidez, dirulaguntzaren aurrerapen gisa.

Gainerako zenbatekoa, emandako dirulaguntza osoaren ehuneko 80raino, 2025erako aurrekontua behin betiko onartu ondoren.

Gainerako ehuneko 20a justifikazioa bidali eta onartzearen mende egongo da.

Diru-laguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo entitate onuradunak:

Udalak lehendik emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu.

Aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

Zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta ez baditu.

### 16. Dirulaguntza justifikatzea

Nahitaez justifikatu beharko du jasotako dirulaguntza pertsona edo entitate onuradunak, justifikazio-kontu arruntaren modalitatearen bidez, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 33. artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

Justifikazioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, proiektua gauzatzen amaitzen denetik zenbatzen hasita; horrenbestez, martxoaren 1ean amaituko da epea A programako laguntzei dagokienez, eta irailaren 1ean, B programako laguntzei dagokienez.

Oroitidazki ekonomikoan deialdi honetara aurkeztutako proiektuaren ehuneko 100 justifikatu behar da.

Nolanahi ere, onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean gauzatu eta justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko du osasun publikoaren zerbitzuak, justifikazioa egiaztatze fasean. Guztira baliatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Horrek ez du eragotziko bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 40.1 artikularen b) eta c) ataletan ezarritako kasuetan.

B programan, lantegiak bideratuko dituzten pertsonen berdintasunaren arloko prestakuntza egiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz gero, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko dute. Agiri hori aurkezten ez bada, emandako laguntza gutxitu egingo da, irizpide horren balorazioari dagokion ehunekoan.

Euskararen erabileraren jarraipena, "Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa" aurkeztuko da. Fitxa hau entitate onuradunen eskura dago udalaren webgunean: <http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

Zeharkako gastuak.

Zeharkako kostuak edo gastu orokorrak onartuko dira, dirulaguntza gisa emandako zenbatekoaren ehuneko 10eraino. Halakotzat joko dira diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egoztekoak ez izan arren hura egiteko beharrezko direnak, esate baterako, entitatearen beraren mantentze-gastuak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza).

Kostu horiek ez dira agiri bidez justifikatu beharko, baina adierazi egin beharko dira ohiko justifikazio-kontuan, bertako 2. atalean ("Proiektuari dagozkion gastu-egiaztagirien zerrenda") eta 3. atalean ("Sarrera eta gastuen balantzea").

#### **17. Dirulaguntzak itzultzea**

Emandako laguntza guztiz ez justifikatzeak edo behar bezala ez justifikatzeak emandako zenbatekoa itzuli beharra eragin dezake, osorik edo zati batean. Diruz lagundutako jardueren exekuzioaren ez-betetze partzialen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa ez-betetzearen mailaren arabera izango da, betiere proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

Era berean, itzuli egin beharko dira dira jasotako zenbatekoak Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 40. artikuluan adierazitako kasuetan.

#### **18. Informazioa eta aholkularitza**

Osasun publikoaren zerbitzuak informazioa eta aholkuak emango dizkie entitate interesdunei, posta elektronikoko helbide honen bidez: [saludpublica@vitoria-gasteiz.org](mailto:saludpublica@vitoria-gasteiz.org).

Vitoria-Gasteizen, 2023ko azaroaren 20an

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko  
Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua  
ANA BAZTERRICA MANCEBO*